



URAK Andoaingo Ziako erreken saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko behin betiko proiektua onartu du

- **Lehen fasea 22,1M€-tan lizitatuko da, eta gauzatzeko epea 32 hilabetekoa izango da, URAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Andoaingo Udalak obrak egiteko hitzarmena sinatutakoan**
- **Lanen helburua: Oria ibaira egiten den zuzeneko isurketa handiena Oria erdialdeko saneamendu-sarera bideratzea, zein erreken ur-gordien errepikapen naturalen arriskua murriztea**
- **Proiektua 3 denbora-fasetan banatuko da, eta 46,9 milioi euroko inbertsio globala izango du**

URAK behin betiko onartu du Ziako erreken uholdeetatik babesteko eta saneamendua hobetzeko lanen proiektua, jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren. Bi proiektu horiek batera burutuko dira, hainbat fasetan banatuta, eta **46,9 milioi euroko** inbertsio globala beharko dute.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, URA-Uraren Euskal Agentzia obren 1. FASEA udaberri honetan bertan lizitatuzko prestatzen ari da (saneamenduaren arloko jarduketara osoa eta ubideratzearen lehen zatia), **22.105.177 euroko inbertsio orokorrarekin (BEZa barne)**.

Horretarako, ezinbestekoa da datozen asteetan URAREN, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Andoaingo Udalaren artean obrak gauzatu eta finantzatzeko hitzarmena sinatu ahal izatea; erakunde bakoitzeko gobernu-organismoek argi berdea eman beharko dute datozen egunetan. Aldundiak saneamendu-jarduketaren % 40 finantzatuko luke 4.289.317 euroarekin, eta Udalak 390.567 euro finantzatuko lituzke hornidura-sare berriari dagokionez (1,3 kilometroko eroanbide berria Super Amara eta Martin Ugalde artean) edo lurzorua jarrita. Gainerako jarduketara 17.425.291 euroarekin (saneamenduaren finantzaketaren % 60a eta bideratzearen % 100a), eta proiektuaren idazketa, kontratazioa eta obraren zuzendaritza URARI egokituko zaio.

Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak aurreratu ditu URA Andoainean gauzaten hasiko den proiektuaren xehetasunak. Berarekin izan dira Amaia Barredo, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea; Mainer Lainez, Andoaingo alkatea; Antonio Aiz, URAko zuzendari nagusia; eta proiektua bultzatzen duen talde teknikoa.

Tapiaren arabera, "uholdeen aurrean babesteko eta Ziako erreken saneamendua hobetzeko proiektuak anbizio handikoak dira, eta URAK 3 fasetan gauzatuko ditu". Aurreratu duenez, "arazo hidraulikoak eta isurketenak konpontzea ahalbidetuko du, baita Ama Kandida inguruko hirigintza-eraldaketa desblokeatzea eta erraztea ere". URARENTZAT "funtsezkoa da hirigintza eta ingurune hidraulikoa elkarrekin harmonian bizitzea; aire zabaleko erreka edukitzeak ingurune bizigarria eta atseginagoa sortzea ahalbidetuko du". Sailburuak aitortu zuenez: "badakigu Andoaingo herriak premia handia duela Ama Kandidaren eremua eraberritzeko, segurtasuna hobetzeko eta etxebizitza berriak sustatzeko". Adierazi duenez, "espero dugu Ziako erreka arazo izatetik Andoainerako auzo berri bat eraikitzeke aukera izatera pasatzea".



Udalaren aldetik, Andoaingo alkate Mainer Lainezek nabarmendu du “Andoainek urteak daramatzala jarduera hau eskatzen, eta auzo berri bat garatzeko aukera emango digula, horrek dakarren bizitza eta aukera berriak sortuta, eta proiektu hau behin betiko onartuta errealitate bihurtzen hasi dela. Eskerrak eman nahi dizkiegu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, bere taldeari eta URari Andoainen aldeko apustu argi eta irmoa egiteagatik. Argi geratzen da erakundeok elkarrekin lan egiten dugunean gure herritarrak onuragarri ateratzen direla”.

SANEAMENDU-LANAK

Alde batetik, **saneamendu-obrei** esker saneamenduko kolektore nagusia eraiki ahal izango da. Kolektore horrek gaur egun Ziako errekastora isurtzen dituzten hiri- eta industria-isurketa guztiak bilduko ditu, eta, azkenik, Oria erdialdeko hodi biltzailera (Adunako araztegira, Gipuzkoako Urak kudeatutakoa) sartuko dira. Saneamendu-jarduketa Gudarien Hiribidetik (Super Amara supermerkatuko ingurunea) Ama Kandida etorbidearen erdiraino (Orbelan enpresaren parean) hedatzen da, eta bertan dagoen sarearekiko konexioa egongo da.

Zehazki, 1.960 m kolektore nagusi eta 2.890 m bigarren mailako kolektore (ur beltzak eta euri-urak) eraiki nahi dira, guztira **4.850 m kolektore**. Diametroko eta material aldakorreko sare berri bat eraikiko da, tartearen arabera. Instalazioaren gehieneko sakonera 5,60 m-koa izango da, 3,50 eta 4,00 m arteko batez besteko sakonerarekin. Sare horri esker, hiri- eta industria-isurketak Oria erdialdeko hodi-biltzailera konektatu ahal izango dira, goiko auzoetatik (Erroitx, Plazaola, Aranzibia) datozen isurketak barne.

ERREKAREN BIDERATZE-LANAK

Bestalde, Ziako errekastaren uholdeei aurre egiteko lanak burutu beharko dira. Horretarako, ubidearen ibilgu berri bat sortuko da Andoaingo udalerrriaren hiri-zatitik igarotzen denean: egungo estalduraren hasieratik, Martin Ugalde kultur parkearen inguruan, Ama Kandidako hiribide osoa zeharkatuz eta N-I errepeidea gaindituz, Bazkardo-Calonge auzoan Oria ibaian isurtzen den arte.

Andoaingo hiri-eremu osoan (Berrozpe eta Ama Kandida etorbidea) egungo estaldura kentzea eta haren trazadura aldatzea aurreikusten da, ahal den neurrian Ama Kandida etorbideetik igaroko den aire zabaleko irtenbide bat bilatuz.

Bere dimentsioa dela eta, **proiektua 3 fasetan banatu da**.

Obren I. fasea Martin Ugalde Kultur Parkearen parean hasten da, eta Denak poligonoaren hasieraraino luzatzen da. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF 2021-2027) finantzatzen du proiektu hau.

URAK aurreikusten du 2023an lizitatzea saneamendu-proiektu osoa eta uholdeen aurkako defentsa-proiektuaren 1. fasea, eta 390.567 euro hornikuntza arloan. Guztira: 22.105.177 €

Ondoren, uholdeetatik babesteko lanen gainerako bi faseei ekin beharko zaie:

II. fasean, Ama Kandida-Bazkardoren amaieratik hasita, N1a lurpean gurutzatzen duen, Calonge inguruan irteten den eta erdikoaren parean Oriarekin bat egiten duen tarteko jarduketak sartzen dira. Jarduketa horrek 15.165.146 euroko inbertsioa eskatuko du (BEZa barne), eta 14 hilabeteko exekuzio-epaia izango du obra esleitzen denetik.

Azkenik, **III. faseak** I. fasearen eta III. fasearen arteko tarte lotuko du, eta Ama Kandida etorbideetik igaroko da. 10.017.386€ (BEZa barne), eta 13 hilabete beharko dira obra esleitu eta obrak hasten direnetik.

Andoain, 2023ko martxoak 11.